

## A.3.4. EGIGUREN TARREN

A.3.4. EGIGUREN TARREN

Azalera: 24.679 m2

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Romualdo Galdos, J. A. Gisasola eta Zezenbide kaleek eta Isasi Kaleko 5 - 17. zenbaki bitarteko eraikinen atzealdeak mugatutako zona da.

Ekintza hauek proposatzen dira zona honetan:

* Gaur egun Guardia Zibilak hartzen duen eremua berregokitu eta ekipamendu-erabilerarako eraldatzea, auzoaren erdiko "plaza" eratuko luketen espazio libreak eratuz.

* Sostoa Kaleko 12. zenbakiko eraikina bermatzea, Sostoa eta Indalezio Ojanguren kaleen arteko malda plaza txiki baten bidez konponduko duen bizileku eraikin bat baimenduz eta A.A. 112 01 Sostoatarren 14 Jarduketa Isolatuaren bidez garatuko dena: Zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordezterakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2B "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak ", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.